

Neandertalaren orain arteko genoma osatuena aurkeztu dute

2010ean neandertalaren genomaren zirriborroa plazaratu zuen Science aldizkariak. Egileak Max Planck Institututuko ikertzaileak ziren, eta orain ere haiek aurkeztu dute orain arteko genoma osatuena. Aurkezpenak polemika sortu du inguru batzuetan, datu guztiak denen eskura jarri baitituzte zientzia-aldizkari batean argitaratu aurretik. Hala ere, Max Planckekoek aurreratu dute badutela ikerketa argitaratzeko asmoa.

Bitartean, emaitzak publiko egin dituzte. Adierazi dutenez, oraingo genomak “oso kalitate” handia du. Hain zuzen, 2010eko zirriborroa egiteko, Kroaziako haitzulo batean topatutako hiru hezurretatik abiatu ziren, eta, batz bestea, behin baino ez zuten sekuentziatu genomaren kokapen bakoitza. Orain, berriz, Denisovan (Siberia) aurkitutako banako baten oineko hezurretik abiatu dira, eta kokapen bakoitza “50 aldiz” sekuentziatu dutela zehaztu dute. DNA garaikidearen kutsadura, berriz, % 1 ingurukoa dela kalkulatu dute.

Horrez gain, neandertal horren genoma sekuentziatuta dauden beste neandertal batzuenarekin eta denisovako gizakiarenarekin alderatu dute, eta ikusi dute beste neandertalekin ahaidetuta dagoela, nahiz eta denisovako gizakiak eta biek bizileku berbera izan zuten (ziur aski, garai desberdinetan bizi izan ziren kobazulo hartan). ●

Iberiar penintsulako bi perretxiko-espezie berri deskribatu dituzte

Tripaki esan ohi zaien genero jangarrikoak dira EHUko ikertzaileek deskribatutako bi espezieak

Bi perretxiko-espezie berri deskribatu dituzte EHUko mikologo batzuek, Espainiako Erret Lorategi Botanikoko eta Esloveniako Baso Institututuko ikertzaileekin batera. *Hydnum* generoko bi espezie dira: *Hydnum ovoideisporum* eta *Hydnum vesterholtii*. Tripaki esan ohi zaie genero horretako perretxikoei, eta, genero ezaguna da, hartako perretxiko asko jateko onak direlako. *Mycologia* aldizkarian argitaratu dute espezie berrien deskribapena.

Genero ezaguna izanagatik, lan zientifiko gutxi egin dira hura osatzen duten espezieak aztertu eta deskribatzeko, EHUko ikertzaile Ibai Olariagak SINC Espainiako zientzia-albisteen webguneari adierazi dionez. Hark gidatu du ikerketa, eta haren esanean, oso zaila da genero horretan bereizketak egitea, espezieak oso antzekoak baitira itxuraz eta ezaugarri

mikroskopikoak ere antzekoak baitituzte. “Besteak beste, horregatik uste izan dute autore askok aldaera diferente gutxi zirela *Hydnum* espezieetan”, gehitu du Olariagak.

Olariagak urteak daramatza *Hydnum* generoaren berrikuspen bat egiten Iberiar penintsulan.

Morfologian oinarritutako taxonomia klasikoaren bidez detektatu zuen bazirela besteetatik bereizten diren bi espezie, espora oboideak dituztelako —gehienetan esferikoak izaten dira—; eta, argitaratu berri den lanean, azterketa molekularren bidez baieztatu du hala dela, bi espezieak leinu genetikoki bereizitakoak direla. Hain juxtu, perretxiko horiei buruz egin diren azterketa molekular apurrek dibertsitate genetikoa handia dela pentsarazten dute.

Jangarriak eta ezezagunak

Jangarriak direnez gero, *Hydnum* generoko

espezieak erruz biltzen dira, baina Olariagak nabarmentzen du gutxi ezagutzen dela haien banaketaz eta ekologiaz. Esaterako, ez da ezagutzen biltzen diren espezieak espezie mehatxatuak edo desagertzeko arriskuan daudenak diren, edo, aldiz, espezie oso arruntak diren.

Generoa osatzen duten espezie bat bera ere pozoitsua ez izateak, haiek bereizteko ahalegin txikia ekarri du Olariagaren ustez, eta halako azterketen bidez jakintzan sakontzeko interesa aldarrikatzen du. Deskribatutako espezie berriak jangarriak ote diren galdetuta, baietz dio: “Nekez pentsa liteke deskribatutako bi espezie hauek ez direla jangarriak”. *Hydnum* generoko perretxikoak filogenetikoki senidetuak daude *Cantharellus* (ziza horia da genero horretakoa) eta *Clavulina* generokoekin. ●



Hydnum vesterholtii eta *Hydnum ovoideisporum* perretxikoak, deskribatutako bi perretxiko espezie berriak. Tripaki esan ohi zaien generoko perretxikoak dira biak. ARG.: © EHU.